

Artearen historia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**UNIBERTSITATERA
SARTZEKO PROBAK**

UPV/EHU

2016

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Aukera bakoitzean, 4 galdera daude. Hau da bakoitzaren puntuazioa:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren gainerako edukiei buruzkoa da.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.
Pregunta 2: 2 puntos.
Pregunta 3: 3 puntos.
Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.

TESTUA

1

Zer esan nahi du honek, zer esan nahi ote du honek denak? galdetzen zion Lily Briscoek bere buruari, bakarrik utzi zutenetik erabaki ezinik zer ote zen hobe, beste kafe kikara baten bila sukaldera joatea ala bertan geratzea. Zer esan nahi du honek? — lema bat zen hori, libururen batetik bildua, bere gogoetekin aldez edo moldez egokitzen zena, ezinezkoa egiten baitzitzaion, lehen egun honetan Ramsaytarrenean, bere sentimenduak murriztea. [...] Izan ere zer sentitzen zuen berez, honenbeste urte eta gero itzuli eta Ramsay andrea hilda egonik? Deus ez, deus ez — hitzez adierazteko moduko deus ez.

Aurreko gauean iritsi zen, dena ilun, misteriotsu zegoenean. Orain esna zegoen, gosal mahaiko bere aspaldiko txokoan [...] Txango hura zuten egitekoa — farora ziren joatekoak, Ramsay jauna, Cam eta James. Ordurako joanak behar zuten — itsasgora-edo zeukaten hartu beharra. Eta Cam ez zegoen prest eta James ez zegoen prest eta Nancyri ogitartekoak egiteko agintzea ahaztu eta Ramsay jauna bere onetatik atera eta atea danbateko batez itxita irten zen kanpora.

[...] Zer zentzugabea zen hura, zer kaotikoa, zer irreal, pentsatu zuen, bere kafe kikara hutsari begira. Ramsay andrea hilik; Andrew eroria; Prue ere hilik — behin eta berriro errepikatuta ere ez zuen horrek beragan sentimendurik ernetzen. Eta hemen bildu gara denok holako etxe batean holako goiz batean, esan zuen, leihotik begira — patxadako egun eder bat zen.

Bat-batean Ramsay jaunak pasaeran burua jaso eta zuzenean begiratu zion, begirada nahasi, basati [...]; eta Lilyk kafe kikara hutsetik edaten ari zen itxura egin zuen, harengandik ihesi — haren eskakizunei ihesi, premia larri hura geroxeagorako uzteko momentu batez. Eta berari buruaz imintzinoa egin, eta oinez jarraitu zuen («Bakarrik» entzun zion esaten, «Hilda» entzun zion esaten) eta, beste guztia bezala, goiz bakan honetan hitz haiek sinbolo bihurtu ziren, horma berde grisaxka guztietan zehar idatziak. Haiexek bateratzerik baleuka, pentsatu zuen, denak esaldiren batean idazterik, orduan gauzen egiara helduko zen. [...] Farora joatea. Baina zer eraman diezaiekegu farokoei? Hilda. Bakarrik. Argi berde grisaxka aurreko horman. Hutsuneak. Hauek ziren zatietako batzuk, baina nola elkartu denak? galdetzen zuen bere artean. [...] Bat-batean oroitu zen. Hamar urte lehenago bera han bertan eserita egon zenean, adar edo hosto irudi txiki bat zegoen mantelean, eta hari begira egon zen errebelaziozko momentu batean. Problemaren bat eduki zuen koadro baten lehen planoarekin. Zuhaitza erdialdera, esan zuen garai hartan. Inoiz ez zuen koadro hura bukatu. Bere buruan egon zen gordeta hainbeste urtetan. Orain pintatuko zuen koadro hura. Non ote zeuden bere pinturak? Bere pinturak, bai. Sarreran utzi zituen aurreko gauean. Berehala hasiko zen [...]; orain bazekien zer egin nahi zuen.

[...]

Esku irmoarekin ipini zuen oihal garbia astoaren gainean, barrera moduan, ahula, baina Ramsay jauna eta honen hertsitasuna uxatzeko aski sendoa izango zelakoan. [...] Gizon horrek, pentsatu zuen gero eta haserreago, inoiz ez zuen ematen; hartu bakarrik. Bera, berriz, ematera behartuko zuten. Ramsay andreak ere eman zuen. Eman eta eman eta eman hil zen — eta hau dena utzi zuen. [...] Hemen zegoen Lily, berrogeita lau urterekin, denbora alferrikaltzen, ezertxo ere egiteko gai



ez, hantxe zutik, pintaketan jolasten, [...] eta dena Ramsay andrearen kulpagatik. Hilda zegoen. [...] Hilda zegoen.

[...] Idorra zegoen dena: zimeldua dena: xahutua dena. Hobe zuten gonbidatu ez balute; hobe zuen etorri ez balitz. Berrogeita lau urterekin ez dago denbora alferrikaltzerik, pentsatu zuen. Gorroto zuen pintaketan jolastea. [...] Baina Ramsay jaunak hartara behartu zuen. Ez gero oihala ukitu, ematen zuen esaten ziola beragana makurtuta, zugandik nahi dudana ematen didazun arte. Hementxe zegoen, berriro ere beragandik gertu, grinati, nahastuta. [...] Hementxe zegoen Ramsay jauna, bere ondoan geldituta: Ahal zuena emango zion.

2

Pittin bat xigortua dago, pentsatu zuen Ramsay jaunak. Itxura eskasa, iharra; baina hala ere erakargarria. Gogoko zuen. Garai batean William Bankesekin ezkonduko ote zen zurrumurrua ibili zen, baina ez zen gauzatu. Emaztea ere haren zale zen. Gosaltzerakoan apur bat atera zen bere senetik. Eta gainera, gainera — honelako momentuetantxe bultzatzen zion berebiziko premia hark, zer ote zen antzeman ahal izan gabe, edozein emakumerengana hurbiltzeko, haiek derrigortzeko, berdin zitzaion nola, hain baitzen handia bere premia, behar zuena eman ziezaioten: errukia.

[...] Isilune beldurgarria egon zen. Biak zeuden itsasoari begira. Zergatik, pentsatu zuen Ramsay jaunak, begiratzen ote du itsasora ni hemen nagoenean? Faroan lur hartu ahal izateko nahikoa bare egotea espero zuen, esan zuen Lilyk. Fara! Fara! Zer ikusi dauka horrek? pentsatu zuen Ramsay jaunak luzeiritzita. Orduantxe, antzinako haize boladaren baten indarrez (izan ere ezin zion bere buruari gehiagoan eutsi), halako antsia jalki zuen non mundu osoko beste edozein emakumek zer edo zer egin, zer edo zer esango baitzuen — nik ez beste guztiek, pentsatu zuen Lilyk, bere baitara saminki bilduz, ni ez bainaiz emakumea, baizik eta neskazahar petral, erretxin, elkorra.

[...] Bere sexuko norbaitentzat berebiziko lotsa zen bertan mutturik egotea. Halakoetan zera esaten zen —zer esaten zen halakoetan?— Oh, Ramsay jauna! Ramsay jaun maitea! Marrazkiak egiten zituen andre zahar jator hark, Beckwith andreak, horixe esango zuen berehala, zuzen asko. Baina ez. Hantxe zeuden biak, gainerako mundutik bananduak. Ramsay jaunak bere buruaganako zeukan gupida itzel hura, erruki demanda hura, denean isuri eta putzuen eran zabaltzen zen bere oinetan, eta berak, bekatari ziztrin alaena, egin zuen bakarra izan zen belaun aldean gona gehixeago biltzea, ez bustitzearren. Erabateko isiltasunean zegoen hantxe, pintzelari eusten.

A AUKERA

1. Errealismo magikoa. Koka ezazu mugimendua bere testuinguru historikoan, argi ezazu bere izendapenaren zergatia, eta komentatu haren ezaugarri nagusiak. Aipa itzazu, gutxienez, mugimenduaren hiru egile eta hiru obra adierazgarri. (3 puntu).
2. Identifikatu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Kokatu obra egilearen ekoizpen literarioaren barnean eta egilearen biografiarekin eta testuinguru historikoarekin erlazioan. (2 puntu)
3. Erlaziona itzazu aipatutako obra eta haren egilea XX. mendeko eleberrigintzaren berritze-prozesuarekin. Azaldu zer izan zen berritze hori, eta adierazi haren zer alderdi ageri diren testuan. Bestalde, zein da "faroaren" eginkizuna obraren egituran eta argumentuan? (3 puntu)
4. Eman zure iritzia obrako Lily pertsonaiari buruz eta bizitzaren aurrean duen jarrerari buruz. Argudiatu zure erantzuna ikuspuntu pertsonaletik eta zure bizipenekin erlazionatuta. Zure ustez, pasartean zer jarrera hartzen du Ramsay jaunaren aurrean? (2 puntu)

B AUKERA

1. Azaldu ezazu mugimendu erromantikoaren sorrera bere garaiko aldaketa soziopolitiko eta kulturekin erlazionaturik. Azaldu itzazu, labur, literatura erromantikoaren ezaugarri nagusiak. (3 puntu)
2. Identifikatu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Jarri erlazioan obra eta egilea beren testuinguru historiko eta literarioarekin. (2 puntu)
3. Pasartean, era batera edo bestera, obrako hiru pertsonaia nagusiak ageri dira. Adierazi zein diren, zer eginkizun duten obran eta zer teknika erabiltzen diren haiek ezaugarritzeko. Adierazi, halaber, ea badagoen loturarik egilearen biografiarekin eta pentsamenduarekin, eta, baiezkoan, zein diren. (3 puntu)
4. Azaldu zer esanahi duen, zure ustez, faroak obran, eta ea sinbolismo motaren bat izan dezakeen. Pasartea zein obra osoa kontuan harturik, uste duzu aurkezten dituen inguruabarrek eta problemek gaurkotasuna dutela? Haietakoren batekin identifikatuta edo haietakoren batek eraginda ikusten duzu zeure burua? Argudiatu zure erantzuna ikuspuntu pertsonaletik eta zure bizipenekin erlazionatuta. (2 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Errealismo magikoaren ezaugarriak azaldu eta komentatzea: 1,5 puntu
- Ezaugarri horiek errealismo magikoa sortzen den testuinguruarekin erlazionatzea: 1 puntu
- Mugimendu horren hiru idazle eta hiru obra, gutxienez, aipatzea: 0,5 puntu

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa ...) identifikatzea: 1 puntu.
- Ezagutzen ditu Virginia Woolfen obra nagusiak, eta gai da *Farorantz* haien artean kokatzeko: 0,5 puntu
- Aipatzen ditu *Farorantz* obran dauden elementu autobiografikoak, eta beren testuinguru historikoarekin erlazionatzen ditu: 0,5 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Eleberrigintzaren berrikuntzaren eta berrikuntza horrek narrazioaren forma tradizionalarekin ekarri zuen etenaren azalpen nahikoa ematen du (akzioaren zatikatzea, denbora-jokoak, introspektzioa, perspektibak, gaiak): 1 puntu.
- Berritasun horiek identifikatzen ditu Virginia Woolfen eleberrian eta testuan (introspektzioa eta perspektiba-aldaketak, zeharkako estilo askea, eta abar): 1 puntu.
- Erakusten du badakiela zein den obraren argumentua eta egitura: 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematea.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzea.
- Gai izatea obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai izatea irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Erromantizismoaren sorrera testuinguru historikoan kokatzen du, eta Iraultza Frantsesaren ondoriozko aldaketa soziopolitiko eta kulturekin erlazionatzen du: 1,5 puntu
- Argi azaltzen ditu literatura erromantikoaren ezaugarririk garrantzitsuenak: 1,5 puntu

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa ...) identifikatzea: 1 puntu.
- *Farorantz* eta Virginia Woolf XX. mendearen lehen erdiko eleberrigintzaren berrikuntzaren testuinguruan kokatzen ditu: 0,5 puntu.
- Virginia Woolf XX. mendearen hasierako britainiar gizartearekin eta mugimendu feministarekin erlazionatzen ditu: 0,5 puntu

3^a galdera (3 puntu)

- Pertsonaiak identifikatzen ditu, eta obran zer eginkizun duten azaltzen du: 1 puntu.
- Erakusten du nola eta zer teknikarekin ezaugarritzen diren pertsonaia horiek pasartean agertzen denari erreferentzia eginez (kontalariaren perspektiba, zeharkako estilo askea): 1 puntu.
- Azaltzen du zer erlazio duten aipatutako pertsonaiek autorearen biografiarekin eta pentsamenduarekin: 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematea.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzea.
- Gai izatea obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai izatea irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.